

Euskal AEko ondasun-esportazioak %3,4 gutxitu ziren eta inportazioak %10,4 gehitu 2018ko abuztuan

2018ko lehenengo zortzi hilabeteetako metatuan %9,0 hazi dira esportazioak eta 3.771 milioi euroko saldo positiboa lortu da

Euskal AEko **ondasun-esportazioak** %3,4 jaitsi ziren 2018ko abuztuan urte artean, Eustaten datuen arabera. Guztira, 1.693 milioi euro izan ziren; aurreko urteko hilabete berean, aldiz, 1.753. *Ondasun energetikoen* esportazioak %6,4 gutxitu ziren; *ez-energetikoenak*, %3,1.

Bizkaia da lurralde bakarra zeinetan aldakuntza positiboa den, %0,9rekin, *Produktu ez-energetikoen* esportazioen hazkundeari esker (%3,4), zeren *energetikoe*k %6,5 egin baitute atzera. Araban esportazioak %13,8 gutxitu dira, eta Gipuzkoan %1,9.

Euskal AEko **ondasun-inportazioak** %10,4 gehitu ziren; orotara, 1.536 milioi euro izan ziren. Inportazio *energetikoe*k %37,6 gehitu ziren; *ez-energetikoe*k, %0,4.

Lurraldeka, Bizkaiko inportazioak %14,8 hazi dira, Arabakoak %5,1 eta Gipuzkoakoak %2,9.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2018 Abuztua

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Abuztua			Abuztua		
	2017	2018	Δ %	2017	2018	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	1.753.103	1.692.782	-3,4	1.391.646	1.535.853	10,4
PRODUKTU ENERGETIKOAK	199.822	186.938	-6,4	374.167	514.689	37,6
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.553.281	1.505.844	-3,1	1.017.479	1.021.163	0,4
URTEKO METATUA	15.598.642	17.008.828	9,0	12.259.275	13.237.471	8,0
PRODUKTU ENERGETIKOAK	1.338.646	1.633.277	22,0	3.383.650	3.771.599	11,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	14.259.997	15.375.551	7,8	8.875.625	9.465.872	6,7
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	413.503	356.442	-13,8	291.839	306.746	5,1
URTEKO METATUA	4.720.372	5.129.111	8,7	2.576.967	2.859.036	10,9
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	783.847	791.024	0,9	816.896	937.896	14,8
URTEKO METATUA	6.168.191	6.974.261	13,1	7.259.390	7.729.400	6,5
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	555.752	545.316	-1,9	282.911	291.210	2,9
URTEKO METATUA	4.710.079	4.905.456	4,1	2.422.918	2.649.035	9,3

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

48 jarduera-adar nagusiak aztertuta (A86), eta esportazioei begira, nabarmena da hil horretan *Motor ibilgailuen fabrikazioari* lotutako produktuen esportazioen jaitsiera (%26,0), nahiz eta jarraitzen duen izaten esportazio-bolumen handiena duen adarra (guztizkoaren %15,0). Adar horren barnean, diesel ibilgailuak %40,2 jaitsi dira. Beheranzko joera hori errepikatu egiten da beste jarduera-adar garrantzitsu batzuetan: rankingean bigarrena hil horretan (guztizkoaren %10,9), *Erabilera orokorreko makineria*, %10,8 jaitsi zen; laugarrena, *Metalezko artikulak* (guztizkoaren %8,7), %10,4, eta bosgarrena, *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (guztizkoaren %8,6),


%11,3. Hala ere, kontrako norabidean nabarmenak dira *Siderurgiak* (guztizkoaren %10,8) eduki duen hazkunde handia, %42,9, eta *Kautxuzko produktuena* (guztizkoaren %8,1), %50,6ko igoerarekin.

Xehekiago, hilabete horretan esportatu diren 859 produktu-motetatik (4 digituko muga-zergen partidak), produktu horien rankingean lehenak dira *Automobilentzako zati eta osagarriak*, *Petrolioaren olioak*, *Kautxuzko pneumatiko berriak* eta *5-10 pertsonarentzako turismoak*; lau partida horiek dira, abuztuan, guztizkoaren %25,9, 438,9 milioi euroko balio bateratuarekin.

Hil horretan bost herrialde (Frantzia, Alemania, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Belgika) dira gure bezero nagusiak, esportaturikoaren %48,4 hartzen baitute. Lau 28-EBkoak dira, nora joan diren Euskal AEko esportazioen %65,2.

Inportazioak jarduera-adarren arabera aztertuz (A86), rankingean aurrena, *Erauzketa-industriak* (guztien %33,2), %53,4 hazi da. Hazi dira baita ere *Siderurgia* (%1,9) eta *Erabilera orokorreko makineria* (%6,2), baina jaitsi da, garrantzitsuenen artean, *Motor ibilgailuen fabrikazioa* (-%4,5).

Euskal AEko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizearen urte-arterko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Uneko prezioak



2018KO LEHEN ZORTZI HILETAKO METATUA

Ondasunen kanpo-merkataritzan Euskal AEn, 2018ko lehen zortzi hiletan, 3.771 milioi euroko saldo positiboa dago

Urteko lehen zortzi hiletarako, Euskal AEko esportazioak %9,0 hazi dira aurreko urteko aldi berarekin konparatua, eta horrek ekarri dio 432 milioi euroko hazkundera merkataritza-saldoari aurreko urteko aldi berean erregistratu zenaren aldean.

Bizkaiko esportazioak, azterturiko aldian, Euskal AEko garrantzitsuenak dira (6.974,3 milioiko metatua eta %13,1eko hazkundera). Araban hazkundera %8,7koa da (5.129,1 milioi) eta Gipuzkoan

%4,1ekoa (4.905,5 milioi). *Produktu energetikoak*, 1.633 milioirekin, %22,0 hazi dira, eta *Produktu ez-energetikoak*, 15.375,6 milioiko metatuarekin, %7,8.

Esportazio-bolumenaren arabera bost jardura nagusietan (A86) izan da hazkunderik urteko lehen zortzi hiletan. Nabarmena da hazkundera *Kokeriak eta petrolio-fintzeari* loturiko produktuetan (%29,3), 1.392,2 milioi euroko kopurura iritsita, aurreko urteko aldi berean esportaturikoa baino 315,5 milioi gehiago. Halaber, adar esportatzaile nagusia (4.317,4 milioi, guztiaren %25,4), *Motordun ibilgailuen fabrikazioa*, %11,6 gehitu da.

2018ko lehen zortzi hiletako ranking esportatzailean Alemania da herrialde hartzaile nagusia, esportaturiko guztiaren %15,4rekin. Alemaniaren ondoren Frantzia (%15,0) eta AEB (%8,5) daude. Hiruren artean, Euskal AEk esportatzen duenaren ia %40 dute hartzen.

2018ko abuztu arte inportatutakoaren metatua, Euskal AE osorako, 13.237,5 milioi euro ingurukoa da. Urte artean, 2017ko aldi berean erregistratu zen zifra baino 978 milioi gehiago dira. Bizkaia da gailentzen inportazioen hazkunde horretan, hazkundearen %48,0 hartzen baitu. *Produktu energetikoen* inportazioa %11,5 hazi da, eta *Produktu ez-energetikoena* %6,7.

Ondasunen kanpo-merkataritzan Euskal AEn, 2018ko lehenengo zortzi hilabeteetan, 3.771,4 milioi euroko saldo positiboa dago, aurreko urteko aldi berean atzemandakoa baino 432 milioi gehiago, zeina den %128,5eko estaldura-tasa. 28-EBren barnean tasa txikienak dira Irlandari dagozkionak (%20,6) —327 milioi inguru inportatzen ditugu eta 67 esportatzen—, Luxenburgori dagozkionak (%39,2) eta Bulgariari dagozkionak (%96,5); Europar Batasuneko gainerako herrialdeentzat tasa hori 100en gainetik dago.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62